

Xamurtasunaren historia Zaldibian

PERU CALABAZA SABAN
2021

Herri baten historia kontatzeko orduan gertakizun politiko eta sozio-ekonomiko garrantzitsuenak aipatu ohi dira. Ez da inoiz kontatzen herri baten historia xamurtasunaren historia dela, hura denez gizataldea elkarrekin lotzen duena.

Maitasunaren adierazpenik lasai, eder eta sendoena da. Begiradak, besarkadak, muxuak, laztanak... Xamurtasunak gure egunerokoa zeharkatzen du. Nola bizi dugun, zer ematen diogun xamurtasunari, halako pozez bizi gara.

Bizi-kalitatearen kodea da.

Baina nola kontatu liteke herri baten xamurtasunaren historia?

MUNDUAN artzainak egon baino lehen ardi basatiak bizi ziren, baita Aralarko larretan ere.

Oso desberdina ote zen ardi basatien bizimodua? Milaka urte atzera bizi ziren gizakiek erantzun beharko liokete galdera horri baina milaka urte atzera bizi zirenez haien testigantzarik ez dugu. Historiaren arazoa horixe da. Ardiek eurek ere kontatu lezakete euren historiaren parte hori, belaunaldiz belaunaldi arkumetxoei kontatu dizkieten arbasoei buruzko ipuin eta kantuen bidez... baina zoritxarrez ardien kantuak ez ditugu ulertzen. Abere sinpleak direla pentsatzera jotzen dugu.

Dakiguna zera da, une jakin batean artzainak ardiez jabetu zirela eta zakurren bat ere juntatu zitzaizela, eta bizimodu berri bat asmatu zutela sinbiosi horien bitartez: otsoengandik babestuta lasaiago bizi ei dira ardiak gerotzik; trukean gizakiek otsoarena egiten dute batzuetan, eta besteetan gazta, mamia, jertseak, mantak, galtzerdiak.

Aralarko udalekuetako larreetan artzain eta ardiek uda osoa elkarrekin pasatzen zuten duela gutxi arte, milaka urte atzerako harekin hain diferentea izango ez zen bizimoduan, kobazuloetan babestuta lehenengo, txabola eta bordetan gero. Eta den-denek lokartzeko abesti goxoak kantatzen zizkieten sutondoan umetxoei.

* * *

ZALDIBIAKO xamurtasunaren historia Zaldibia izena eta herria bera baino askoz lehenago hasi baitzen.

Xamurtasunaren historia galderaz beteta dago, inoiz kontatua izan ez delako. Hori ekarri du hain zuzen besazpian Zaldibiara aste batzuk igarotzera etorri den Esteban izeneko esploradore xelebreak: galderaz betetako karpeta handi bat.

Hasieraren kontu honen harira, duela gutxi irakurritako historia hau gustatu eta arkatzez apuntatu zuen:

“Ikasle batek Margaret Mead antropologo estatubatuarrari galdetu zion zein uste zuen izan zela Gizateriaren lehen zibilizazio-zeinua. Ikasleak eta bere lagunek Meadek amuaz, buztinezko eltzeaz edo ehotzeko harriaz hitz egitea espero zuten. Baina ez. Berak esan zuen antzinako kultura batean zibilizazioaren lehen zeinua femur bat izan zela, norbaitek hautsi eta gero sendatu zena.

Meadek azaldu zuen animalien erreinuan, hanka bat hautsiz gero, hil egiten zarela. Izan ere, ezin duzu ez janaririk ez urik eskuratu, ezta arriskutik ihes egin ere; eta beheko gorputz-adarra hautsita duten animaliek ez dute hezurra bere kabuz lotzeko adina denbora irauten. Beraz, femur hautsi batek, eta sendatu zenak, argi uzten du norbait hautsi zuenarekin geratu zela, eta haustura loturaz bildu eta haustura immobilizatu ziola. Hau da, zaindu egin

zuela”.

Bere aurkikuntzarekin pozik, lehen hiru galderak post-it batean idatzi ditu esploradore antiojodunak. Esate baterako:

Zer da xamurtasuna?

ETA ASKO PENTSATU GABE datorkion jario bati segika zera idatzi du: Xamurtasunak aitortzen zaiona baino garrantzi handiagoa dauka geure bizimoduan eta baita arbasoenean ere. Ez da beti jarduera klandestinoan izan.

Zerbaitek bizitzari edertasuna eta zentzua ematen badio, hori xamurtasuna da. Maitasunaren adierazpenik lasai, eder eta sendoena da. Laztanean, xehetasun sotilean, ustekabeko oparian, begirada konplizean edo emandako besarkada zintzoan adierazitako errespetua, aintzatespena eta maitasuna dira.

Umetxoak, xamurtasunik jasotzen ez badute, hil egiten dira. Pertsona helduen arteko harremanak ere, xamurtasunik gabe, gizatasun gabeak dira.

Zainketak, maitasuna, sexualitatea. Begiradak, hizkera goxoak, besarkadak, musuak, laztanak... Xamurtasunak gure egunerokoa zeharkatzen du, gure hezurdura nekatuei altzo goxoa eskainiz.

Limurtu egin da gure esploradorea esaldi hauek gauzatzearekin batera, eta ezker eskuarekin lepoa eta bularraldea ferekatzen hasia dela ohartu da. Utzi dio eskuari bidea egiten, idazketa lana alboratu gabe.

Giza plazer oinarrizkoena, bizi-kalitatearen kodea da. Nola bizi dugun, zer ematen diogun xamurtasunari, halako pozez bizi gara. Bizitzaren momentu guztietan dago presente ezinbestean, xamurtasun emozionala zein fisikoa, bere forma guztietan.

Azal lodia ala fina izan, zenbat eman, zenbat jasotzeko prest, norberarekiko, besteekiko... sentikortasun gaitasunari estu lotua dago, eta beldur eta lotsen aurrean ezkutatu egiten da.

Herri baten historia xamurtasunaren historia da, berari esker sortzen dira beharrezko loturak, berari esker bizi dira pertsonak, elikagaiez haratago. Funtsean, komunitate bat elkarrekin lotzen duena xamurtasuna da.

Bapo geratu da Esteban idatzitakoarekin eta bigarrenari ekin dio:

Zer da historia?

XAMURTASUNAREN HISTORIA ikertzera etorri den esploradore leuna nahastu egiten da batzuetan, historia liburuetan ez baita goxotasunari buruzko inolako

erreferentziarik agertzen. Borborka datozkio galdera berriak: Historia gizonezkoek idatzi dutelako ote da? Inperialista borrokazale garaileek idatzi dutelako, borrokarik nahi ez zuten pertsona ororen gainetik?

Herri baten historia kontatzerakoan aldi historiko zehatz batzuetan izandako gertakizun politiko eta ekonomiko garrantzitsuenak aipatu ohi dituzte historia kontatzen duten gizonek.

Zaldibian abelazkuntzaren ekonomia eta kulturarekin hasi, antzinako garai haietan nagusi ziren ofizioak aipatu, eta XII. mendeko izkribuetan Santa Fe eliza eta Saturdiko ermita aipatzen direla esan ohi da. 1615eko otsailaren 13an lortu zuela Ordiziarekiko udal independentzia Felipe III. erregearen eskutik, 3.575 dukaten truke. Gero etorriko ziren Karlistadak, industrializazioa, Gerra Zibila, frankismoa, trantsizioko susperraldia eta oraingo hau... Kutsu ezkorra izaten du normalean historia ofizialaren kontakizunak, ekintza bortitzek markatzen baitute.

Zergatik kontatzen da beti gisa horretako historia? Zer da berez historia eta nork kontatzen du eta zertarako? Izan ere, askoz jende gehiago bizi izan zen herrian eta bizimoduan gertakizun askok eragiten zuten... Misterioak osatzen du historia. Nork argituko ote duen eta nolako argiarekin, begirada kontziente batekin egiten den hautaketa da historiaren kontaketa.

Historia asko kontatu daitezke. Idatzi dira artearen historia, literaturarena, filosofiarena, bikingoena, xakearena, ordenagailuena, Joko Olinpikoena... Eta ñabardura guztiak kanpoan geratzen dira beti. Ezinezkoa delako, ozeanora joan eta berrogeita zazpi ur tanta aukeratzea bezain ezinezkoa. Kontatzen duenaren interesak eta bere betaurrekoek ikusten uzten diotena beti atzean... Baina tira, ikuspegi zehatz batetik gertakizun zehatz batzuk ontzat eman eta gero mundu osoan ikasle guztiek historia hori ikasi behar dute, eta azterketak gainditu. Horixe izan da Historia gehienontzat. Baina xamurtasunarena? Zergatik ez zaigu historia hori inoiz kontatzen?

Horretara jarri aurretik hirugarren galderari begiratu dio esploradore kanpotarrak:

...eta Zaldibia?

GALDERA zail samar honi erantzuteko, alegia zertan den Zaldibia 'edozein' herri eta zertan berezi-berezia, Esteban esploradoreak apropos deritzo bertako batzuei uztea aurkezpenerako hitzak jartzen:

Izan ere, 1960ko hamarkadan aako lau neska gaztek Lagunak taldea sortu eta hainbat herritan kantari ibili ziren. Garai hartan Ez Dok Amairu taldea sortu zen, eta Lagunak taldekoak haiekin aritu ziren jotzen boladatxo batean. Handik eta hemendik ibilita, euren herria aurkezteko abesti hau kantatzen zuten:

HERRITXO BAT

Herritxo txiki bat
Txindoki babesean
hemen bizi gera
poz-pozik gure artean
lara, lara, la....

Nahiz txikia izan
gure txoko maitea
ez nuke salduko
urre guztin trukean
lara, lara, la...

Amorrain ugari
baditu ur garbian
baita txori pranko
goiko kanpantorrean
lara, lara, la...

Hain mendi politak
ditu aldamenean
nahi badezu ikusi
guazen nahi dezunean
lara, lara, la...

Eta nahi badezu
mondeju txuriak jan
zatoz Zaldibira... (bis)
Santa Fe egunetan... (bis)
lara, lara, la...

Orduan, noiz hasten da
Xamurtasunaren Historia Zaldibin?

ESTEBANEK ez daki nondik hasi eta badaezpada “500.000 / 50.000 / 5.000 / 500 / 50 / 5” apuntatu du bere koadernoan. Orduan idatzi du:

DUELA 500.000 URTE baziren jada bi miloi urte *homo* generoa bilakaeran zebilela, dirudienez Afrikan soilik hasiera batean, eta Eurasian barrena gero. Aurkikuntza txikiak eta eboluzio mantsoa eginez, baina beste izaki guztien artean nabarmendu gabe naturan bizi izan ginen milaka eta milaka eta milaka urtez, beste ugaztunengandik oso gutxika desberdinduz. Mende bat errekatxoa da paleolitoaren ozeanoaz ari garelarik. Gizakion historiaren garrantzitsuena paleolito luzean dago, nahiz kontakizunik ez dagoen. Ez dago inolako aztarnarik garai haietan Zaldibian homoak ibili zirenik esaten digunik.

Esan dezakegu: “Zaldibiako Xamurtasunaren Historia Zaldibiako bigarren biztanlea iristearekin batera hasten da”. Baina ez da egia, askoz aurretik egon baitzegoen xamurtasuna gaur Zaldibia deitzen dugun lur horretan.

DUELA 50.000 URTE kokatuko dugu historia honen hasiera beraz. Ikertzaile gehienek orduko *sapiens* haiek gu bezain adimentsu, sortzaile eta sentiberak zirela uste dute. Genetikoki ez gara ia aldatu.

Tze izeneko biltzaile-ehiztaria egun batez esnatu eta lagunekin irten zen basoan jatekoen bila. Perretxikoak, sustrai jangarriak, igelak... Eguerdirako bueltan izatekoak ziren. Gero arratsaldean denbora libre asko izango zuten elkarri istorioak kontatzeko, hurrekin jolasteko edo besterik gabe plazeretan eta alferkerian ibiltzeko. Baina egun horretan ahuntz baten atzetik joan eta ohi baino gehiago urrundu ziren mendi larreetako taldearen kanpalekutik.

Gaur egun Zaldibiako plaza dagoen lekuan bertan izan zen enkontrua, oraindik izenik gabeko errekan. Bere taldekoek arbuiatu zutelako alde egin behar izan zuen Mah emakumezkoak kostaldetik, eta lurralde zabalak zeharkatu zituen egarriak itota errekarara ailegatu zenerako... Egunak eta egunak zeramazkien ibiltzen, ihesean hasiera hartan, zerbaiten bila gero, ondo jakin gabe ere zer zen. Jatekoak eskuratzen trebea zen arren, ezinegonak eta nekeak jota zegoen, eta zauri itsusi samar bat ere egin zuen oinazpian. Ez zuen asko iraungo.

Edaten eta garbitzen ari zela inguruan zerbait zebilela sumatu eta hiru gizaki begira zeuzkala ikusi zuen. Bere lantza eskura zuen baina berehala ohartu zen ez zuela defendatzeko beharrik, etorri berriek jarrera atsegina zutelako berarekin, irribarrez eta begirada irekiarekin. Hitz egiten saiatu ziren eta hizkuntza ezberdinak erabiltzen zituzten arren oinarrizko kontuak komunikatzeko gai izan ziren. Bere bakardadearen izua ulertu zuten berehala, eta hura laguntzea erabaki. Batak burua laztandu zion eta hark irribarre goxo bat itzuli. Bien begiradek *tink* egin zuten, distira bat. Zauria arakatu eta inguruan hura zaintzeko sendabelarrak bilatu zituen Tze izeneko emakume gazteak. Gizonezkoetako batek, Has izenekoak, su egiteko egurtxoak jaso zituen eta laugarrena, Zil, intxaurrak eta onddoak biltzen aritu zen. Ilundutakoan sutondoan ziren laurak otordu oparoa egiten, eta barre sano ere egin

zuten.

Bertan igaro zuten gaua, justu gaur egun Zaldibiako udaletxe berria dagoen parean. Hotz egiten zuenez, besarkatuta egin zuten lo, binaka, eta oso hurbil batzuk besteengandik, eta justu lokartu aurretik Mahk pentsatu zuen horixe zela jakin gabe bilatzen zuen hura.

Biharamunean Amondarain errekan barrena Koa izeneko kobazuloraino iritsi ziren eta han ezagutu zituen Mahk eskuzabal hartu zuten taldeko beste kideak.

Kideen arteko loturak eguneroko harremanetan oinarritzen ziren: zirriak eginez, ukituz, musukatuz, elkar garbituz eta elkarri mesedeak eginez.

Antropologo, etnologo, arkeologo, paleontologo, entomologo, otorrinolaringologo eta beste *ologo* batzuen liburuak aztertu ditu esploradore bidaiariak: Arsuaga, Eisler, Harari, Barandiaran, Gimbutas, Maturana... Informazio asko jaso du, lan serioa egin nahi du Esteban ipuingileak. Idazketarik eta armadarik gabeko garaiez ari gara, izararik eta sardexkarik ere ez zegoenekoaz.

Ehiztari-biltzaileen munduan janari goxoa topatutakoan, fruituak eta okela batez ere, ahal bezain beste jateko beharra zuten beste batek harrapatu baino lehen (eta hortik ei datorkigu guri janari betekadak egiteko sena hori, nahiz guk, hau irakurtzen ari garenok, jakiak nahieran eduki neberan); bilketa zen haien jarduera nagusia, ehizaren aurretik; ibilian bizi ziren, janari bila, urtaroen arabera; ez omen zegoen jabego pribaturik, harreman monogamorik ez aitatasunik; gizaki bakoitzak aldi berean izan zitzakeen sexu-harremanak eta lotura intimoak hainbat gizon eta emakumerekin; umeak tribu osoaren artean hazten ziren, aita biologikoa nor zuten jakin gabe. Egurrezko eta harrizko tresnak zeuzkaten batik bat, eta gutxi, oso maiz aldatzen baitzuten etxea.

Hau ez da orain artean nahikoa esan, eta argi esan beharra dago: xamurtasuna bizitzaren erdigunean zeukaten gizarteak ziren garai hartan gaur egun Euskal Herria deitzen dugun lurralde osoan (eta ingurukoetan ere) bizi zirenak.

Talde txikietan bizi ziren eta lankidetzan aritzen omen ziren, ehizan, salerosketa txikietan, festa edo erritualetan, zenbaitetan beste talde batzuekin batera ere. Batzuetan borrokak ere gertatuko ziren, noski, baina giza populazioa oso txikia zen mundu osoan. Taldeak bakanak ziren eta batzuetan urtetan ez zuten beste talderik aurkitzen. Bere inguruaren ezagutza sakona zuten: zein landare diren jangarri eta zeintzuek gaixotzen duten, sendatzeko zeintzuek balio duten, untxiak nola harrapatu, sugearen ziztadari nola aurre egin, edota bere bailarako ezagutza geografiko sakonak. Inoiz historian egondako gizabanakorik jakintsuenak eta trebeenak izan ziren.

Bestalde, beren gorputzen eta zentzumenen barne mundua primeran menderatzen zuten, eta sasoi bikainean ziren. Ondo esertzen ere bazekiten. Oro har geroztiko gizaki guztiek baino bizimodu erosoago eta onuragarriagoa zutela esaten dute adituek. Nutrizio ideala zuten, askotarikoa. 60 edo 80 urte bizi zitezkeen.

Ondorengo gizaki nekazariak baino handiagoak ziren. Berriro esango dugu: biologikoki ia-ia haien berdinak gara, azken sei mila urte hauetan hainbeste aldaketa sozial-politiko-ekonomiko gertatu badira ere.

Baina... orduan
gero zer arraio gertatu zen?

ESTEBANEK ikertutakoaren arabera, orain dela 6.000 bat urte hasiko ginen gizakiok abereak etxekotzen, zakurra lehendabizi, ardiak eta behiak gero, zerri, ahuntz, zaldiak geroxeago. Astoak eta oiloak duela 2.300 urte inguru, atzo bertan. Nekazaritza ere etorri zen pixkanaka eta horrekin batera ordura arte nomadak ziren taldeak sedentario bilakatu ziren. Horrela sortu ziren jabego pribatua, hura zaindu beharra eta beste arazo batzuk. Hau guzti hau beste lurralde batzuetan gertatu zen gurean baino askoz lehenago.

Neolitoa aurrerapena edo atzerakada izan ote zen ez dago oso argi. Populazioak handitzen hasi ziren eta gauza guztiak konplikatzen. Lehen herriak sortu ziren, eta etorkizunaren antzeko zerbait asmatzen zen. Ordura arte dena zen orainaldi. Zeramika eta kobrea azaltzen hasi ziren, eta artean haien eguneroko bizitzari buruzko apenas ezer ez dakigu. Idazketa asmatzen hasi zen munduan nonbait baina hark ere Zaldibiako bizimoduari buruzko pista gutxi utzi dizkigu. Lana bizitzaren erdigunean noiz kokatu ote zen ere ez dago oso argi baina hor hasi zen dena konplikatzen, animaliak eta landareak etxekotze horretan.

DUELA 5.000 URTE laborantzaren iraultza puri-purian zebilen Ñañarriren magaletan. Lurralde hauetan ere, zakurra etxekotu zuten lehendabizi, eta ardiak eta behiak belaunaldi batzuk beranduago. Populazio ibiltariak pixka bat egonkortu ziren nekazaritzaren hastapenetan ginelako. Lurralde baketsuak baziren ere, jabego pribatua gertatzen hasi zen pittinka hemen ere, horrek gerora ekarriko zituen arazo guztiekin.

Nekazaritza eta abeltzaintzarekin batera gizakiarentzat lan handiagoak etorri ziren, eta hori plazeraren kalterako izan zela dudarik ez. Biltzaile-ehiztari izaten jarraitu zuten, baina nekazari eta abeltzain lanek kentzen zieten denbora zela-eta ezin zuten hartara hainbeste denbora eman eta dieta mugatu eta desorekatu egin zitzairen. Baliabideak urrituta, handik lasterrera uzta galtzen zeneko urtean gosea pairatzen hasiko ziren, baina artean halakorik gertatu gabea zen inguru oparo hauetan.

Espiritualtasuna animista izanik naturaren parte ziren eta landare eta animaliekin batera bizi eta haiekin hitz egiten zuten. Ama Jainkosak bizitza

ekartzen duenez, garai horretako margo eta eskulturetan oraindik ere iruditeria femeninoa da nagusi mundu osoan. Aralarko trikuharri eta jentil-baratzeak garai haietan sortutakoak dira, orain artean dakigunez leku espiritual eta baita hilobi bezala ere.

Mari izeneko neskatoa gaurko Urtsuerreka inguruan zegoen herrixkan bizi zen. Artaldeekin ibiltzen ziren Mari eta beste artzain batzuk, eta gari, garagar edota ilarrak ere landatzen zituzten herri inguruko lurretan. Artean bizimodua ez zen oraindik familiaren inguruan antolatzen, tribuan bizi ziren berrogei bat lagun, inguruko beste gizataldeekin harreman estuan.

Kideen arteko loturak eguneroko harremanetan oinarritzen ziren: zirriak eginez, ukituz, musukatuz, elkar garbituz eta elkarri mesedeak eginez.

Ume asko zebiltzan herrian, bertan egonkortu zirenetik erruz jaiotzen baitziren. Gauero, etxe bakoitzean, seme-alabei ipuinak kontatzen zizkieten, eta lo kantak abestu, goxo-goxo.

Ekhi Aralarreko larreetan ibiltzen zen bere artaldearekin, bere familia Amezketa ingurukoa izaki. Artzain arteko erromeria batean, Igaratza inguruan, ezagutu zuten elkar Marik eta Ekhik. Euskaraz mintzatu ziren, pittin bat desberdinak ziren euskalkietan. Barre handia egin zuten.

Batak besteari burua laztandu zioten eta irribarre goxo bat elkarri itzuli. Bien begiradek *tink* egin zuten, distira bat. Dardara bat nabaritu zuten bularraldean, eta gustatu zitzaien epeltasun hori. Gazteak izanagatik ezagun zituzten biek ere larruaren plazerak baina berezia zen hura. Beste artzainengandik banatu gabe, laztanez laztan arropak erantzi eta bien gorputz iletsuen izerdiak elkartu zituzten. Gazta eta intxaurrekin elkarrekin jan zituzten arratsalde horretan, eta sagarrak... eta baita gazta, intxaur eta sagarrak ez zirenak ere.

Antzinako historia dagoen pista jokorik handiena da, eta erantzunak ez daude inon idatzita. Ikerketek aurkikuntza gutxi batzuetatik susmo eta interpretazioak egin behar dituzte, zer begiradarekin egingo, eta horren arabera kontatu. Joko horretan sartu da Esteban buru-belarri.

Kontuak kontu, orain dela 3.000 urte inguru (huskeria bat) hasi omen ziren jatorri indoeuroparreko gizataldeak Euskal Herri deitzen dugun lurraldeetara etortzen. Ordura arte kanpoko eragin handirik gabe bizi izan ginela dirudi. Brontze eta Burdin garaia pasatu ziren eta gerora erromatarrak ere etorri ziren inguru hauetara, baina mendialdean (*saltus*) oso eragin kultural txikia izan zuten. Euskara izan zen Erromatar Inperioaren hizkuntz uniformizazioa gainditu eta bizirik iraun zuen hizkuntza bakarra.

Aipatzekoa da ere Erdi Aroko landa giroko euskal bizimoduaren berri pertsona hiritarren bidez soilik daukagula. Gizarte politikoa eklesiastikoarekin batera mendialdekoak zibilizatzen ahalegindu zen mendez mende.

Historia oso poliki gertatzen zen garaia ziren oraindik ere. Gu gara azkar

gabiltzanak. “Bost mila urte geroago” esaten dugu eta lasai geratzen gara, pentsatu gabe zenbat belaunaldi eta zenbat gizaki (bakoitza bere burutazio guztiekin), zenbat asmakizun txiki gertatzen aritu ziren egunerokoan. Ez zegoen azeleratzeko beharrik ere. Txutxu-mutxuak eta albisteak ez ziren mundu osoan klik bakar batean barreiatzen. Ez ziren barreiatzen.

Leku zoragarrian bizi ziren eta ez zuten borrokan ibili beharrik, ezta beste leku batzuk ezagutzera joateko beharrik ere. Bizimodu sinplea zuten gogoko, aldamenekoak zainduz, eta inguruko paisaiak maite zituzten oroz gain. Gaur oraindik ere halatsu bizi dira zaldibiar asko, eta hau bitxikeria iruditzen zaio mundu moderno honetatik datorren esploradore urbanitari.

Zergatik uste dugu
antzinako garaietako gizarteak
xamurragoak zirela?

LIBURUETARA jo du Esteban esploradoreak berriro galdera honi erantzuteko...

Arte paleolitikoaren eta neolitikoaren berrikuspenak Naturaren emankortasuna gurtzen duten ehunka estatua paleolitiko erakusten dizkigu, emakume ugalkorren irudiaren bidez irudikatua. Venus paleolitikoek izaera numinosa zuten, eta ez dago gizonezkoen irudiak irudikatzen dituen arte horren aztarna paleolitikorik.

Brontze Aroan, hasierako gizonezko ehiztariaren mitoa aldatu egin zen, gerlariaren mitoa bihurtu arte. Orain dela 4.000 urte inguru, tribu gerlari nomaden etengabeko inbasioekin, jainkosak bere toki nagusia galtzen du gizarteen erritu erlijiosoetan, toki hau, jainko gerlari-ehiztariak hartuz. Lehen aldia da, 25.000 urte inguruko historian, tribuen bizitza baketsua modu bortitzean eteten dena.

Indoeuropar herri gerrazaleek burututako kolonizazioek, herri neolitikoen bizimodua eraldatu zuten. Indarrez iritsi ziren, etika gerrazale bat ezarriz. Europako historiaurrearen ibilbidea aldatu zuten, kultura estratifikatua, artzaintza, nomada eta gerrara bideratua inposatu baitzuten, ordura arte zegoen nekazaritza sedentario, berdintasunezko eta baketsuaren gainera.

Garai honetan, ohikoak ziren aztarna arkeologikoekin batera, aizkorak, sastakaiak eta beste gerra tresna batzuk aurkitzen hasi ziren. Ordura arte ez da frogarik aurkitu herriak elkarren artean borrokatzen ari zirenik.

Jainkosaren mitoa
ANNE BARING eta JULES CASHFORD

Baina benetan...
Xamurtasuna Zaldibian?

KALEAN ibili da Esteban jendeari galdezka eta *Xamurtasuna* eta *Zaldibia* hitzak esaldi berean sar litezkeenik zalantza handiak dauzkate zaldibiar askok. Gizonen arteko besarkada batek, estua edo luzea bada, bizkarreko fuerte batzuk lagunduta egon beharko du, *porsiakaso*, ez dezaten pentsatu...

Izan ere, familiaz kanpoko pertsona helduen arteko xamurtasun adierazpenak ia-ia jarduera klandestinoak bilakatu dira urteen poderioz. Honek txoratu egiten du esploradore sentikorra eta galdera berriak ekartzen. Esate baterako: hala izan al da beti?

Aldaketa historiko nagusienak azken ehun urteetan gertatu direla uste izaten da; alegia, antzinatek zetozen bizimodu eta ohiturak nolabait bere horretan mantendu zirela hemen, baserriaren edo arrantzaren inguruan kasu, XX. mendea etorri eta denbora tarte batean dena hankaz gora jarri zuen arte.

Horren arabera, aurretik igaro ziren milaka urte horietan zehar pertsona euskaldunen jokamoldeak eta harremantzeko erak apenas aldatu ez zirela uste izaten da. Orduan...

Euskal sena berez hotza eta
sentikortasun adierazpen gutxikoa ote da?

PUNTU ASKO balio dituen galdera da hau. Euskal sena halakoa dela pentsatzera iritsi gara, halakoak izan garela beti euskaldunok, baina Estebanek beti zalantzak dauzka eta Zaldibiako liburutegiko historia liburuetara jo du artazi handi batzuk eskuetan hartuta.

Antzinako aztarna gutxi batzuk aurkitu ditu, beti kanpotarrek idatzita, bertakoen jokaera nolakoa izan eta ondoren zer gertatu ote zen:

XII. mendean Aymeric Picaud bidaiariak honakoa idatzi zuen *Codex Calixtinus* delakoan baskoen herriari buruz:

“Herri basatia da hau, beste herri guztietatik ezberdina ohituretan eta eran, zeinahi gaiztakeriaz betea, kolorez beltza, itxuraz maltzurra, gaiztoa, okerra, doilorra, hitzik gabekoa eta ustela, lizuna, mozkortia, bortizkeria orotan artetsua, izugarri eta landugabea, makur eta zitala, fedegabe eta errukigabea, anker eta kalapitaria, batere dohainik gabea, bizio eta maltzurkeria guztietan ikasia (...) Hango eskualde batzuetan, Bizkaian eta Araban hain zuzen, nafar gizonezkoek andrazkoei eta andrazkoek

gizonezkoei, lotsariak erakusten dizkiete elkarri, berotzen diren bitartean. Gainera haragikeria lohian lotzen dira abereekin nafarrak; hesgailua zintzilikatzen omen die nafarrak mando emeari eta behorrari gibelaldean, berak baino ez izateko hartarako bidea. Gainera musu likitsak ematen dizkio andrearen eta mando emearen aluari. Horregatik gaitzetsi egin behar ditu nafarrak heziketadun orok”.

Ups.

Euskal senari buruz gehiago jakin nahian, beste aipu hau aurkitu du esploradore gazteak, Pierre de Lancre —1609ko Lapurdiko sorgin-ehiza prozesuen arduradunari— jasotakoa:

“Euskal Herria sagar herria da, bertako emakumeek sagarrak besterik ez dituzte jaten, sagar zukua besterik ez dute edaten eta edozein alditan prest daude transgresioaren sagarrari kosk egiteko, Jainkoaren gaitzespenaren gaintik pasatuz eta gure lehen aitaren debekua gaindituz. Evak dira, Adanen seme-alabak nahita liluratzen dituztenak, eta, buruan biluzik, mendietan bizi dira askatasun eta inozotasun osoz, Evak lurreko paradisuari egiten zuen bezala”.

Boom.

Inkiszioa XIII. mendean ezarri bazen ere ia Europa osoan, bereziki XVI. eta XVII. mendeetan sorginkeriararen pertsekuzio latza egin zuten euskal lurraldeetan. Inkiszioa, gizartea kontrolatzeko erabili zen tresna eraginkorra izan zen, alde soziopolitikotik zein erlijiosotik. Sorginkeriararen patroiararen azpian, kontrolatzen zailak ziren landa-herriak beldurtzeko borondatea ezkutatzen zen, emakumearen rol soziala modu berezian menderatuz eta mugatuz.

Nola galdu genuen gure paradisuak?

BADAGO ZERBAIT esploradore lotsagabe honek ulertzen ez duena —edo kezka bat sortzen zaio behintzat—, euskal mitologiako istorioak argigarri izan daitezkeela-eta ikertzen jarri denean. Kontakizun horietan beti ageri baita ongia eta gaiztoa bereizteko nahi hori, eta askotan apaizak edo kristau sinestunak dira argitasunaren eta zuzentasunaren ikur, numen fantastikoak gaizto, anker, astakilo eta inozo direlako. Barandiaran, Azkue, Satrustegi eta enparauak, etnologo eta maitagarri izateaz gain apaiz zirela ezin alboan utzi, eta hortik ere euren ikuskera mugatu samarra izango zutela uste du.

Akelarreei buruz jasota dauden errelato guztiak ere, adibidez, edo kanpo

begirale kristau izutu batek egin ditu, edo tortura gogor pean inkisizioak akusaturik zeudenek aitortutako barrabaskeria eta lizunkeriak dira. Ez du aurkitu Estebanek akelarreetan sinesmen eta plazer osoz parte hartu zuen inoren lekukotzarik, nahiz eta ospakizun haiek gaur egun imajinario kolektiboan orgia eta hedonismo magiko batekin lotzen diren.

Bere ondorioak atera ditu. Mende askotan zehar bi mundu ikuskera arras diferenteren arteko talka egon zela ikusi du: antzinatik datorren kosmogonia naturari lotua, euskalduna, panteistiko eta matrifokala zena alde batetik; kanpotik etorritako ikuskera indoeuroparra, androzentriko, kristaua eta patriarkala bestetik, zibilizazioaren izenean aritzen zena.

Mendialdeko eliza gehienak aurretik izaera magikoa zeukaten parajeetan kokatu ziren, naturarekin loturiko festa egunak bereganatu zituzten eta mundu ikuskera zaharrean hainbesteko garrantzia zeukaten mitoak ere, belaunaldiz belaunaldi kontatzen ziren istorioak, bizitzaren ikuspegi hari zentzua ematen ziotenak, forma berriz jantzi zituzten, izaki fantastikoei izaera beldurgarria emanez. Pixkanaka eta modu gatazkatsuan, kristautasunaren moralak eta sinbologiak gain hartu zioten aurretik zegoenari, eta jentilak mendialdean geratu ziren, desagertu arte.

Bestalde, Zaldibia herria nahiko kontsolidatua zegoen, izena ere bazeukan, nahiz oraindik Ordiziarekin elkartuta egon, beste herri txiki batzuk bezala. Bere eliza nagusia ere bazeukan, eta dozenaka etxe izendunak, horietako asko gaur egun ere hortxe dirautenak: Kanpain, Zubiaurre, Albisu, Iturriza, Nazabalenea, Goroskindegi... Ofizio ezberdin asko agertuak ziren: ikazkinak, errementariak, errotak, bentak, zurginak, sagardogileak, saskigileak, teilaginak... Erloju publiko bat ere jarri zuten plazan!

Aipatu beharra dago ere Gaztelako Koroarena omen zela Ordizia garai hartan, alegia monarkiarik atzerakoi, intolerante eta patriarkalenetakoa zen harena.

Baserri bizimodua zen nagusi oraindik ere, nekazariak eta abeltzainak, baina burdinolak ere baziren jada. Bazegoen dirua, instituzioak, errentak, hierarkiak... ordura arte ez zegoen mundu hori. Inguru osoan zegoen hizkuntz uniformizazioaz gaindi, euskaldunak ziren beste era batean mintzatzen ziren bakarrak. Handia zen bi mundu horien arteko inkomunikazioa. Aldaketa oso handia baitzen: ekonomikoaz gainera, bizitza ulertu eta hari buruzko kontakizunei buruzkoa ere, primitiboak federa ekartzeko lehia hori...

Eta jakina, salto horren aurrean euren bizimodu ohikoari eta grina barrukoei eutsiko zieten askok... Mendialdean batez ere.

DUELA 500 URTE gaurko Osinbeltz inguruko baserri batean bizi zen gure Maritxuk, larunbatero arratsaldez Pikuetan gora egiten zuen leku sekretu batean zegoen

harizti hartan bere lagunekin elkartzera... Han suaren inguruan elkartu, edabe magikoak hartu, norbaitek musika jo, denek dantzatu, taldearen konplizitate osoan gorputzaren plazerez gozatu...

Moral kristau zurrinak debekatzen zituen desioa, plazera, laztanak, dantza eta fantasiaren kontrara jokatzeko zutela argi zegoen, baina han magia zuria bakarrik erabiltzen zuten. Egiatan ez zioten inori kalterik egingo, pentsatzen du (inozoegi agian hemen) gure esploradore historialarilarilariak, baina gauza jakina da, esaten dio bere buruari, plazerak ezagutzen ez dituenari amorru ematen diola besteen gozamen beteak...

Egungo sentiarekin batera etxeratu ohi zen Maritxu, begirada bizia eta gorputz zoriontsuarekin, bere Juanen ondoan etzatera. Handik lasterrera etorriko zitzaizkien haien sei seme-alabak ohera eta lozorroan egongo ziren goiz parte batean, joango ez ziren meza ordua pasa arte. Maritxuren gurasoak eta bi ahizpa ere bizi ziren haiekin batera baserrian, eta haietako batzuk joan izanak ziren harizti sekretuko topaketara. Han akerraren uzkiari musurik ematen ez zitzaiola ondo zekiten denek etxe horretan. Leinu berekoak ziren denak.

Juan ere egona zen horietako akelarreetan, eta gustuko zituen baldin eta errotako lanetik nekatuegi ez bazetorren. Haurren bat gaixorik zutenean ere, Maritxurentzat larunbat gaueko zita ezinbestekoa zela jakitun, bera izaten zen etxean geratzen zena hura zaintzen eta lotarako kantua abesten: *“Lotxo bat eta lotxo bi, amak goxuak ekarri. Beste guzieren bana eta bina, gure umetxuarentzat hamabi”*. Hain pozik etortzen zen! Eta hain gustuko zuen emaztea hain pozik ikustea!

Bistan da, etxe hartako *kideen arteko loturak eguneroko harremanetan oinarritzen ziren ere: zirriak eginez, ukituz, musukatuz, elkar garbituz eta elkarri mesedeak eginez...*

Zergatik lotsatzen gaituzte gaur egun
xamurtasun adierazpenek?

HISTORIA LIBURUETAN xamurtasun izpi gutxi aurkitu du esploradore gosetiak, baina Ilustrazio Garaiko eraldaketei buruzko ohar batzuk topatu ditu, hainbat egileren *Euskaldunak historian barrena: jokabideak, pentsamoldeak eta eguneroko bizitza* liburukotean, bereziki Valverde eta García-Sanzen artean idatzitako kapituluan.

Artaziak hartuta, jazarpenari buruzko zati hauek moztu ditu, Zaldibiako liburutegiko aletik, bere karpetan gordetzeko:

Sexuaren aurkako gurutzada oso latza izan zen XVIII. mendean. Elizan, sexu-inplikazioen bat izan zezakeen edozein aukerari etengabe erasotzen

zitzaion. Eraso horietatik gehienak dantzaldien aurkakoak izan ziren; kendu egin nahi izan ziren, baina nahikoa lan zaila hartu zuten, zeren eta dantza gehien atsegin zuten dibertsioa izateaz gain euskaldunen artean hedatuena ere bai baitzen. Sermolari famatu zen Domingo Agirre Jaunak 1712an Bergarako Batzarretara Memoriala bidali zuen, zeinean, besteak beste, jai eta erromerietan dantza zein kaltegarria zen azaltzen baitzuen: “Ondoren, festa hauetan, inguruneetatik biltzen den mota guztietako jendeak eta gazteek, neskek eta mutilek bereziki, burutzen dituzten gaitzerizteak, bekatu publikoak eta irain larriak azaldu eta zuen zelo handi eta kristauan jarri nahi nituzke; beren danbolinekin, egunez zein gauez, etengabe galdurik ibiltzen dira, zaintzeko ez aitarik eta ez amarik dutelarik”.

1750ean, Miranda eta Argaiz apezpikuak, bertan erabilitako esapideei esker neurri onean, oso famatu egin den ediktu baten bidez debekatu egin zituen. Honela zioen: “Orain garaiazen laxotasunagatik eta bi sexuetako pertsonen zoritxarrezko axolagabekeriagatik, gizonezkoak eta emakumezkoak elkarrekin nahasturik ibiltzeko moda sartu da; arimentzat hain galgarri eta kaltegarri dena eta gazteek libreki eta lasakeriaz ikusten dutena. Batzuen eta besteen artean hurbileko tratua eta komunikazioa dago, eskandalu publikoa, doinu eta antzerki lotsagabeenak, korrika eta elkartzeko lizunak, eta fuga deitzen zaion erako tarrapatuak, infernukoak, ernagarriak eta pozoi hilgarriak beteak; ekintza, keinu, lizunkeriako mugimendu eta ukitzeak, edariak eta freskagarriak eta dantzatan deabrua igarotzen deneko arkuak”.

Enpatiarako joera daukan arren, asko kostatzen zaio esploradore zuriari elizgizon batzuen pentsamoldean sartzea. Ulertu nahiko luke halako gauzak zergatik pentsatzen dituzten, eta zergatik erabakitzen duten euren gorputz propioaren grinekiko barne borroka horri eustea ere, plazerak guztientzat debekatzearaino. Ulertu nahiko luke zergatik bilatzen duten hain mundu hipokrita eta tristea. Baina ez da gai.

Udal-bando askoren bidez sexu desberdinekoak elkartzeko eragotzi nahi zen. Asmo hori du Amezketako 1797ko urtarrilaren 7ko bando honek: “Hiribildu honetako auzo eta biztanle guztiei aditzera ematen diet, eta ondokoa ordenatu eta agintzen diet: gaurtik aurrera maiatzaren hirua bitartean herri honetako plaza eta udaletxetik beren etxeetara gaueko zortzietan erretira daitezela eta ez daitezela, aitzakia edozein izanik ere, udaletxean, plazan edo beste inon gelditu. Maiatzaren hirutik iraileko santakutzak arte, bederatzieta erretira daitezela eta egun horretatik urte bukaera arte zortzietan, bestela nire irizpidearen arabera zigortuak izango

direlarik”.

Mende hauetan, bestalde, sexu-delituak zirela-eta kondenaturiko emakumeak “galera” deituriko kartzela berezietan preso edukitzen zituzten. Euskal probintziek galera eraiki eta mantentzeko dirurik ez zuten. Horregatik, akusaturiko emakumeak Zaragozara eta Valladolidera bidaltzen zituzten. Nafarroako Erresumak, 1684an Galera-Etxea egitea erabaki zuen “sentsualitatearen bizio kutsagarriaren zorigaitzezko aurrerakadak eragozteko... ahal den neurrian Jainkoarekiko irainak eta kausa publikoarekiko kalteak oztopatuz”.

Ernegatuta, beste pasarte argigarri batzuk ere moztu ditu liburu beretik, hainbat informazio eskura izatea komenigarri izan daitekeelakoan:

Erdi Aroan, helduen odolberotasunezko portaerak arautu gabe zeuden. [...] Negarretik barrera oso azkar aldatzen ziren, hunkipenak nabarmenki azaltzen zituztelarik. Norberaren gorputz biluzia naturaltasun osoz eta inongo lotsarik gabe azaltzen zuten; egoera jakin batzuetan behintzat. Sexu harremanak agerikoagoak ziren. Batera egiten zuten lo, behar izanez gero ohe berean bat baino gehiago oheratuz. Horrek ez zuen ordea sexu harremanak izatea galarazten. Haurrak gertu izanda ere ez zuten batere eragozpenik. [...]

Aro Modernoan naturaltasun hau galduz joan ziren; gizakiak bere gorputzarekin eta honen funtzioekiko harremanetan zuen naturaltasuna galdu egin zuen. Ahalke eta lotsazko sentimenduak sortu ziren, hizkuntzaren beraren eboluzioan ere ikus daitekeenez. Pertsonak banantzen zituen horma bat altxatu zen; gorputzak banantzen zituen lerro afektibo bereizle bat gertatu zen. Gero eta gogaikarriago gertatu zen familiatik kanpoko pertsonekin ohean batera egotea eta eskrupulu gehiago sortu zen adierazpen naturaletarako. Beraz, jarrerak zaintzen ikasi zuten eta haurrak era jakin batera portatzen irakatsiz autokontrolaren ildotik hezi zituzten. [...]

XIX. mendeko puritanismoa ahalke eta lotsaren garapenean eta sexuari eta gorputzari uko egitean nabarmenduko zen. Horrek ez du esan nahi gizakiak aingeru bihurtu zirenik. Hipokrisiak indar hartuko zuen, ikusi edo jakin behar ez zena ongi ezkutatuz.

Intimitateak, bizitza pribatuak ere, gora egin zuen gizarte-bizitzaren aurrean: familia berria gero eta itxiagoa bilakatu zen. XIX. mendeko berrikuntza ekonomikoen ondorioz, familia nuklearra sendotu egin zen eta oinetxe familiak atzera egin zuen. Gizaki berri bat osatzen ari zen: barnerakoiagoa, bere inpultsuak, tentsioak, maitasuna, hunkipenak eta

agresibitatea kontrolatzen zekiena.

Oso nekatuta geratu da xamurtasunaren esploradore queer samar hau historia liburuetakoa pasarte hauek irakurri eta gero. Alde batetik, zirrara sortu dio xamurtasun eta sexualitate adierazpenen gaineko errepresioa hain argi ikusi izanak, baina historia berriaren pisuak bularra zanpatzen dio.

XIX. mende bukaera aldera euskaldun gehienak katoliko kartsuak omen ziren, asko fanatikoak ere. Igandero lan gogorrak utzi eta baserritik meza nagusira jaisten ziren, gizon eta emakumeak aparte eserita. Erritu erlijiosoek bete-betean arautzen zuten eguneroko bizitza.

Eta XX. mendekoa etortzekoa zen. Horretaz dokumentazio ugari dago, noski. Ohitura berriak eta erlijio gabetasuna hirietatik etorri ziren oraingoan. Espainiako Gerra Zibilaren aurretik izan zen.

XX. mendean sexu-afektibitatean
aurrerakada egin ote dugu?

1936KO GERRA ZIBIL ANKERRAREN OSTEAN frankismoak ezarritako erregimen faxistak jendartearen gera zitezkeen xamurtasun izpi guztiak desagerrarazi zituen begi bistatik, beldurra ezarriz eta bide batez gizartea iluntasun sexuafektibora kondenatuz.

Historiaren artazi handiak hartuta, azken orrialde batzuk moztu ditu gure esploradore *Scissorhands* honek, liburuak itzuli aurretik:

Frankismoarekin batera, moztu egin ziren II. Errepublikak konkistatutako emakumeen askatasun eta eskubideak. Errepublikak sexuen arteko berdintasuna lortzeko egin zituen lehen saiakerak —botoa emateko eta hautagai izateko eskubidea, dibortzioa eta ezkontza zibila izateko eskubidea, ondorengoen gaineko guraso-ahalaren eskubidea, adulterio-delitua ezabatzea eta eskola mistoetako hezkidetzak etorkizuneko berdintasunaren oinarri bezala— ezerezean geratu ziren. Errepresioa eguneroko ogi bihurtu zen 1939 eta 1977 artean.

Frankismoaren ideal femeninoak emakume guztiak etxekotasunera eta guraso, senar edo anai-arreben aurrean men egitera itzultzea zekarren. Errebeldeentzat, bi irtenbide baino ez zeuden: erbestea edo kartzela.

Erregimenaren eta eliza katolikoaren bat egitea funtsezkoa izan zen gerraosteko status quo-a mantentzeko, beldurrean eta isiltasunean oinarritua.

Menekotasuna, guztien zaintza trukean ezer eskatu gabe, asexualitatea eta borondate propiorik eza ziren Jainkoaren eta, ondorioz, Erregimenaren eta Ama Elizaren mesedea irabazteko funtsezko ezaugarriak.

Adibide bat aipatzearen:

“...Garbia izan nahi duzu? Arriskuari ihes egiozu [...] Emakume puru asko ezagutzen al dituzu, haien artean bilera, dibertsio, ikuskizun edo irakurketa jakin batzuk egiten dituztenen artean? [...] Emakume garbi asko ezagutzen al dituzu, dena begiratu, dena pentsatu, edo dena hitz egiten duten horien artean?... Neska onek etxean giltzapetuta egon behar dute, eta ihes egin behar diote bizitza modernoaren arriskuari, arrisku horrek beste sexuarekin ohitzea, okupazio-berdintasuna eta bizimoduaren berdintasuna dakartza, eta horrek emakume maskulinizatu desorekatu bat ekarriko luke...”
Emilio Enciso Viana, Acción Católica Femenina de España-n apaiz 1950 eta 1963 artean.

Beste garaietako mintzamoldeak, baina hain hurbilak! Xamurtasunaren esploradore nekatuari hotzikara etorri zaio, liburu guztiak itxi ditu eta kalera atera da haize pixka bat hartzera. Ez da harritzekoa halako jazarpena jasan eta gero xamurtasun eta afektibitate guztiak klandestinitateko kontua bilakatzea...! Eguerdia da eta ez dabil inor kalean, burua lehertzeaz dauka.

Osinberdeko ur-jauziraino joan da ibilalditxoa eginez eta bertan irudikatu ditu hasierako bi hominido haiek. *Laztanez laztan_bien gorputz iletsuen izerdiak elkartu zituzten eta intxaurrak elkarrekin jan zituzten arratsalde horretan, eta sagarrak... eta baita intxaur eta sagarrak ez zirenak ere.* Lasaitasuna ekarri dio. Oinak ur freskoetan sartu ditu eta hor geratu da arnasa hartzen. Natura zein ederra den sentipen horretan azkenean lo geratu da.

Bere amarekin amets egin du, nola txikia zenean ohantzean ipuinak kontatzen zizkion, batzuetan irakurriz eta bestetan asmatutakoak, eta batzuetan ama bera nola hasten zen Esteban baino lehen lokartzen eta orduan esaldi arraroak eta hitz asmatuak esaten zituen, eta berak esaten zion “Baina ama, zer esaten ari zara?”, eta orduan barre egiten zuten biek. Gero, argia amatatzerakoan, eskutik helduta geratzeko eskatzen zion amari eta hor jada hark ezin loari eutsi eta nola azkenean bere altzoan lokartzen zen...

Zozo baten kantuarekin batera, ziurtasun bat (eta oinak izoztuta) dituela esnatu da: ez du liburuetan gehiago bilatuko. Historia liburuak ez baitaude inolaz ere goxotasunetik idatziak. Pertsonengana joko du zuzenean Xamurtasunaren Historiaren azken aldiko urteak kontatzeko. Erregistro aldaketa eskatzen du historia honek lehenbailehen! Galdera berria idatzi du:

Nola bizi izan dute
azken urteetako zaldibiarrek?

Herritarren lekukotzak jasotzen jarri eta haien hizkera goxo eta kantariarekin

liluratu da Esteban. Pertsonen ahotan beste era batean gorpuzten da historia.

Debeku giroaz hitz egin diote:

—Egie esan, gutzako nahiko gorra eitten zan euskeraz ezin hitzeiñe, erderaz hitzeiñ beharra. Lezio asko nik memoriz ikasi nittun baino ze esaten nun jakinbe. Gero kontuatu nitzen, urtek pasatu zienen, enee! Hau, hau zan... eta hola. Historia-de-Españako gauzak adibidez, buruz ikasi behar zien: en-1808-surge-la-rebelión-de-nosecuantos...

—El-pueblo-madrileño-capitaneado-por-Daoiz-Velarde-Ruiz... pentsa, holako frasek.

—Eta Pitagorasena... Pitágoras-célebre-matemático-griego-descubrió-en-el-triángulo-rectángulo-la-siguiente-propiedad... Ordun momentun etziñen jabetzen, gero kontuatzan ziñen, hoi ze formula zan...

—Gero asko kastigatzen giñuzten euskeraz hitzeitten gendulako, nik kopia asko eiñ nittun: "No hablaré en vascuence en las horas de clase"

—Errekreaa atutzen giñenen, berez nahi genduna eiñ behar gendun, jolastu ezta? Baiño, beti bakarren bat jartzen tzuen euskeraz zeinek hitzeitten tzon abixatzeko . Horrek andereñoi esan beharra zeken, eta ordun, euskeraz hitzeiñ zonak ba hoi, kopiau beharra zeken...

—Garai hartan, elizak indar haundie zeken. Haundie.

—Baaai. Ta gurasoi iruitzen zitzaien, baaaa elizak esandakoi kaso eiñ beharra zeola. Analizau beharrike etzeon...

—Ez, ez, kuestionature ez. Hue zan bere bidea. Hala zan. Bakarrik guri gero iki zitzaizkiun beste atek, ta lanen hasitakon, beste mundu bat ezautu.... horrek ez dake zerikusik! Batxillerra eitea Ordizia jun, beste herri bat, beste jende bat, baita beste ikuspegi batzuke. Ba bizie aldau eitten da, asko gañea. Ta gerore garai hortan etxene, klaro, denbora pasatzen da, ta hasieran hain estriktok zienak gutxika gutxika aldatzen juten die, lasaitzen, ta ordun nik ustet errexago. Baino elizak beti izan do pixu haundie. Ta muxuk ez reflejatze horrek zerikusi haundie dake horrekin. Ordun dana zan pekatu. Dana zan pekatu. Guk nola ez genduken taberna sartzeik! Etzeon sartzeik. Mutillek bai. Ta prakaike etzeon jazteik! Neskak prakaike etzuen jazten. Beida ze mundu desberdiñek zetozen eh... hoi konpontzea gero ez da hain errexare. Ze desberdinek!

—Molde asko hautsi behar izan ditteu. Hasera haseran, nik prakak jantzi ta autobusen zai neola, gure amari esaten zien: "Han zeon zure alaba... prakakin!"

—Beste gauza kurioso bat: bere garaian gure etxen bi aldetakok egongo zien... ba, ezer ezer etzan komentatzen etxen! ez gerra, ez ondorioik... Guri etziun halako arazoik trasmititu batere. Guri etziun bate komentatzen... ahaztu eiñ nahi, eo enterrau eiñ nahi... eztakit zeatik. En una nebulosa ustet geatu zala dana.

—Hemen apaiz berezie izan gendun: Don Modesto, berezie zan. Mezata jun

bearra zeon síosí. Danak mezata. Goizeko 8:30tan ematen zon. Abilidade berezie zeken, pentsau, meza beatzi minututan ematen tzon!

—Rekorra ematen tzon, bai! Jendek kronometrau eitentzon! Gaur zortzi minutun eman dik! Ta gaur beatzi minutun!

—Ta hoixe, puntual ez baziñen aillatzen... ebangelioako ez baziñen aillatzen... ja meza ez aittuta bezela zan. Ja mezak etzon balio. Ordun hurrungoa aittu beharra zekezun, ta hurrengoa bestek emango zon... Don Modestona jende pilloa etortzen zan,motza zalako,aiñ motza izanda, gero goiz guztie libre geitzen zitzaien!

Eta nola batzuk mendira jotzen zuten babestera:

—Gure aitte artzaie zan ta ordun, eskolako garaien hemen egoten giñen baino geo, oporrak ematen zizkiunen... aittek beti esaten ziun kalen gaizki ikasten zala. Ordun nere anai zana ta biok hor juten ginen Aralarrea uda guztie pasatzea.. Nik ez daket traumaik, egie esan. Goizen biltzen zittun ardik, aitte bea juten zan billa ta gero ardik juten zien bere belardia. Gauen beize bildu eiten zien, kontatzeko bakarren bat falta bazane, artzaie segitun kontuatzan baida ardiñ aurpegikatik bakarren bat falta ote zaion. Ta bueno, pues gosaltzen gendun... akordatzen naiz ardik antzutzen zienen, ja esneik ematen etzuenen, aittek *lechecondensada* potek eukitzen zittun ta harekin gosaltzen gendun. Gero, eunero mantzanila biltzea, nik ez takit gure aittek zeini ematen tzion mantzanillea! ...ta atsalden perretxikuta. Es ke... han aittek persekuzioa eukiko zon bi umekin, guk bakizu, diskutittu eiten gendun ta... "jun zaizte perretxiku bila!" esaten tziun. Eunero perretxikuk biltzea: xixahorik, gibelurdinek...

Eta nola goxotasuna etxean babestu zuten:

—Ba nik, aittonakiñ artoa aletzen ai nitzeneko rekuerto pilloa dittut. Amona denbora askon gaixo eonda hil eiñ zan. Aittonakin goiko ganbara jun ta artoa aletzen aitzen giñen, ta beak kontatzen zizkiun kontu-zarrak. Gu bostok eoten giñen bere ingurun dena aittuz. Horrekin akordatzen naiz.

—Gure etxen lo itteko beti kantu bat ibili da, zuk aittuko zenun: (kantatu egiten dio esploradore xamurtuari) "Lotxo bat eta lotxo bi, amak goxuak ekarri, Beste guziera bana eta bina, gure hamabi", ta hor jartzen zan lo eiñ behar zon umen izena. Ordun ohian eoten ginen, ohi bakuitzen bik lo eiten gendulako. Aurrena kui txikiñ, gero kui haundigon, gero zarrena ohi txiki batera pasatzen tzuen, aittek eiñdakok danak, egurre oso ondo lantzen baizon. Azkeneko pauson ohi normalea pasatzen giñen , "ohi normalea" esaten det 90zm zabal izango zalako, eta biñaka lo itten gendun. Estu-estu.

—Kalefazioa hue zan!

—Mutillek mutillekin ta neskak neskakin.

—Bestela familiko giroa, bai zuen etxen ta baita guren, goxoa izan zan, oso. Nik aman faltea asko izan nun, baiño bueno, nere ahizpak 20 urte zeuzken ta netzat ama mukoa izan zan... Baiño egie esan, tratu aldetik kariño handie izan gendun.

—Guke suertea izan gendun izebak, aman ahizpak, baserrin bizi zielako. Gu jaio giñenen arten han bizi zien. Eta ordun amak laguntza haundie izan tzon. Eta gu gure izebak... mimauta bizi izan giñen. Besarkadak eta muxuk eta hola...

—Mutillek, nik ez dakit musu emateko denbora gehitxo izaten zuen, kanpon lanen... Guk amai helduta eta hola bai... goxotasunen espresio hoi... askotan etzan gehitxo izaten...

—Espresio hoi hain agiriñ igual ez deu agertu. Sentitu bai, baino agiriñ jarri igual ez, muxu eman igual ez.

—Askotan muxu eman beharrik ez dau berotasune sentitzeko, ezta? Nere ustez hoi sentitzen gendun.

—Bai, muxu eman ezakatio oso lotue sentitzen zinen senidekin.

—Igual gauzak esateko modun: "Hau etzazu iñ" ... zutaz kezkatzen zien eta maittetasun bat azaltzen zan...

—Tonue, nola, ze tonutan esaten zizun... hola izaten zan.

—Oain nik nere seme-alabak muxuka jan eitten dittut, lasai asko ematen diet muxu eta heldu eta... bai.

—Bai, bai, bai... Inportantea dalako muxu ematea, sentitzea. Zergatik ez hoi reflejatu, ezta? garai hartan nahiz ta asko maitte etzan reflejatzen muxukin.

Gizarte mailan ere esnatze bat izan omen zela Zaldibin ere:

—Hemen herri mugimendu bate eon zan, baiño hoi politikogoa izan tzan, talde haundie zan, danak famili bat zien, alkarrekin eitten zittuzten proiektuk, egiten tzuena guztie alkarrekin, ta asko zien. Ikastolak martxan jarri zienen... Oidui eiñ tzuenen... Ezkerraldeko jendea zan gehien bat, 70-72 urte hoitan... Beti atentzioa ematen zitten ze ondo eamaten zien, danak anai arrebak bezela, Hauxe da! esaten nun...

DUELA 50 URTE hogeitau bete berriak zituen gure Marikarmenek. Zaldibiako giroan zeharo sartuta egonagatik ere, gaztelaniaz egiten zuten etxean, bere gurasoak Andaluziatik etorritakoak zirelako justu bera jaio aurretik, aita Bilore fabrikari lana lortu zuelako. Orduan oraindik ere fabrikari lan egitea gauza mixerablea bezala ikusita zegoen, zerbait degradantea bezala herrian nagusi ziren baserriko familientzat, eta horrek zenbait arazo sortu zizkion.

Adibidez, Joakinekin nobiotan hasteko zorian zenean, haren familiak ez zionean utzi harremanari aurrera egiten baserriko emazte bat bilatu nahi ziotelako, eta urruntzeko guztia egin zuten. Txutxu-mutxu gaiztoak sortu ziren orduan herrian

Marikarmeni buruzko gezur galantak esanez, haren izena zikinduz. Hala zen orduan. Urte gutxitan aldaketa handia egin zen ordea.

Harremanak egiteko eta mutilak ezagutzeko modu bakarra ia garai hartan dantzaldietara joatea zen. Larraitzeko erromerietara joaten hasi ziren nerabetan, meza ostean festa trikitilariren batekin, eta laster herriko festetara asko mugitzen ziren lagun kuadrillak, orkestra bat zegoen lekuan dantzaldia baitzegoen, Zumarragan adibidez. Beasainen banda egoten zen eta han ibiltzen ziren jira eta buelta, autobusa ikusi arte. Autobusa agertzen zenean, ordea, dantza bere horretan utzi eta korrika abiatzen ziren hura hartzera.

Dantzaldietan neskak hasten ziren neskekin lotuan dantzatzen, eta orduan bi mutil hurbiltzen zitzaizkienean dantza eskatzera, ba maniobrak segun... Bitako bat gehiago gustatuz gero, haiek etorritakoan *rrrrras*, buelta ematen zuten, hobeto egokitzeko, eta beste batzuetan bazetozela ikusita beste alderaino joan, ihesean, nahiz itsusi samarra gertatu mutilentzat.

Joseantoniok Beasaingo halako dantzaldi batean ezagutu zuen lehenengoz Marikarmenek. Hortentsi lagunari Gregorio izeneko mutiko mardul bat gustatzen zitzaion eta haiek biak hurbildutakoan *rrrrras*, buelta egin zion Marikarmeni barkamen moduko keinu bihurri bat eginez. Hala egin zuten topo lehendabizikoz Marikarmen eta Joseantoniok, *Tengo Una Vaca Lechera* igandeko festa giro hartan aurrez aurre dantzatzen. Ez zen berebizikoa izan lehen aldi hura, baina Hortentsik Gregoriorekin kapritxoak zeukanez askotan lotu ziren han, eta gustu hartu zioten. Ordea, Joseantoniok eta Gregorio aste batetik bestera desagertu egin ziren, politikan sartuta zebiltzalako antza, eta hutsuneak bihotzean tristura bat utzi ziola ohartu zen Marikarmen.

Saladefiestasetara ere hasi ziren joaten lagun taldean: Hortentsi bera, baina baita Marijose, Inmakulada, Teresita... Kotxea hartu eta bostak abiatzen ziren Bergarara... Tolosako Maitunara... Zarautza ere bai... Eta halako lekuetan bi urtetan-edo zeharo aldatu zen giroa, eta sekulako *loteak* ematen ikusi zituzten baita Zaldibiako neskak ere. Morreoak orduan beste herrietako diskoteka ilunetan bakarrik ikusten ziren! Eta herri txikiko gure neska mutil formal hauen begietan libertinaje ikaragarria zen hura oraindik ere.

Dena batera gertatu zen hala ere, suspertze modukoa bezala, eta Zaldibiara apaiz berria etorri zen ere garai hartan, Don Jesus; hark ere sexualitatea pixka bat askatu omen zuen, *moldeak hautsi* omen zituen horrek ere berean...

Lagun batzuk nobiotan hasiak ziren eta eskapadak egiteko lagun taldea murrizten ari zen, baina Marikarmenek ez zuen gustukorik aurkitu diskotekatan. Orduan santafeak iritsi, eta sorpresa! Jaietako egun handian, sagardoak ondo alaitutako festa giro apartaren erdian nor azalduko, eta Joseantoniok! "Hitz egin beharra dinagu" esan zion Marikarmeni ikusi bezain pronto. Luze hitz egin zuten elkarri begira, ondoan izanagatik musika urrunetik bezala entzuten zutela. Kale

nagusian zegoen ferratokiaren atzeko iluntasunean zirrarez betetako lehen musu laburra eman zioten elkarri. Bigarrena ere bai. Eta hirugarrena mihia pixka bat sartuta. Zer zen hura! Txinpartak! Gero bakoitza bere etxera, lurrikara bana gorputzean...

Ilunagatik ere, jakin zen herrian han gertatutakoa, eta izan zen ere xamurtasun infinituko tarte hori zikindu nahi izan zuenik, baina ordurako herrian nagusi zen giroa bestelakoa zen, aldaketa garaiak baitzetozen... Gazteak hegoak irekitzen hasiak ziren geldiezina zirudien bidea hartuta.

Azken urratsak falta zaizkio esploradore zirikatzaileari. Lekukotza berriak bilatu ditu, iragan hurbilari buruz misterio asko dauzka argitzeke oraindik. Bilatzen duen xamurtasunaren ñabardurak euskalki goxo horretan ikusten hasia da.

Zer da zaldibiar izatea?

—GU ZALDIBITARRAK gea eta gu Zaldibin pozik! Herri harrotasun hoi badau, haundie! Orokorren Goierrin bakeu gu goierritarrak genan zea hoi igual beste leku batzutan baino gehio, baiño eskualde barrune, zaldibitarrak zaldibitar. Kanpotik etorri dan horrekin alkarbizitzen jakin deu. Zaldibik jende asko hartu do, industrializazio garaien ta jende asko etorri zan Espaiñi hegoaldeetik. Oain urrutixeagotik datoz: Marruekos, Errumanitik asko, Latinoamerikako batzuke bai...

—Jende asko dau herritik asko ata eztana. Hemen lana ta lana ta lana. Animalik dazken jendea... beste lotura bat.

—Gero baita ze aprezio ematen diozun herriko jende ezaunekiñ hitzeittei! Nahiz ta launek ez izan, enkarguta ata ta jendekin hitzeittea, jende heldukiñ hizketan haste hoi, txikitatik, asko apreziau deu. Hoi herri txikitan... herri haunditan, kalerdin, larogei urteko batekin hizketan etzea hasten, baiño Zaldibiñ bai. Bere bizi guztiñ berri jakittek hurruna juntatzen zeatenen Aaah... eztakitzer... hau dala ta hue dala... aitzeko aukerea ematen dizu. Kontu zarrak kontatzeare asko gustatzen zaiu.

—Alkarri launtzek, esate bateako, asko funtzionatu do. Hoi xamurtasune ez al da? Adibidez, hamar bat urte nittula... baserri bat erre eiñ zan, dana egurrezkoa, Urtxuaundi, hemendik gora, oain ia berrittuta dau. Etxea erabat erre zan. Dana galdu zuen. Famili horrentzako dirue biltzeko ekitaldi programa oso bat antolatu zan: kontzertuk, zozketak... gauza pilloa izan tzien.

—Gero esate bateako hemen, elizako rekorrido hoi ez daukenai, plazan bertan omenaldie eitteko oittura izan deu. Normalen eun batetik bestea antolatu behar die. Askotan eiñ die. Adiñekok dienai normalen elizan eitten zaie. Atatakon gorputze, errautsek eo dana dalakoa plaza erdiñ jarri ta jende guztie korron dala

ba... kanta dala, beste batek testu bat irakurri nahi dola, beste batek aureskue, bertsolarik... bakuitze bere eran.

—Baserrik, nere ustetan, asko eraitten do xamurtasunen... ba adibidez amak semealabakiko xamurtasun haundie euki leiken bezela... nere ustez izaera hoi bateze baserrik dator... alegie, aitonamona dien askok baserrikok izandakok dienez hoi transmititu diela semealabai. Ze balore? esango nuke jende asko juten dala gurason etxea, goxotasun horren billa. Bertan ba nere otordutxo goxoa prepatuko diela ta behar deten hoi emango diela. Baserriñe hoi ikusten da: baserrik beak lotzen do familie... Bauzke bere gauz onak ta txarrak. Beti norbait eongo dala jakittek, eota eitteko laneako (milla lan darelako) jendea bildu behar horrek, familie sendotzen launtzen do. Kale etxe baten hoi ez dakezu, umek hazteko garaien... Diferente da... Kalen, bikotea, bi umekiñ, etxea re neurrikoa, balore desberdiñeko laun askokiñ eunero eaman beharra... umek modu hortan biziko duena desberdin bizikodue.

Zertan gauzatzen da xamurtasuna herri mailan?

— EZ NUKE ESANGO Zaldibi herri oso afektiboa danik, ezta kontaktu asko daukeunik gure eunerokon.

— Xamurtasuna kontaktue bakarrik al da?

— Ni neoni igual ez naiz oso xamurre, Zaldibiri beidatuz ez naiz aldrebesena izango baño... gertuko ta laun miñekiñ gehio, bestekin ez gertu ta ezta urrutire... bere neurriñ. Eztet uste Covite dalata urrutiatu behar horrek herritarroi asko eraiñ diunik. Biltzeko dakeun modue dalata, neskatan gehixego eragingo zon seguronea...

— Ez takit ze idatzi behar dezun!

— Xamurtasun hoi gehio ematen da zure kirakokin, eta beste errespetue diezu. Familitik kanpoare: Beti Gazte jubilatun elkarten aurkitzen dezu xamurtasun haundie, bata beste laguntzeko, ulertzeko. Bakizu han etzarella bakarrik, beti izango dezula zuri launtzeko prest daun norbait, garai zalletan zu babestuko zaittuna, besoa luzatuko dizuna...

— Gu oooso herrikok gea, oooso herrikok. Ta egie da nahizta mundu berrie ezautu, herriko izaera hoi mantentzen deula.

Eta ligatzeko?

— GU juergatan, hemen Goierrin, herriz herri muiitu izan gea beti. Noizen behin kanpoa igual. Goierrin danok alkar ezautzen gea, betiko aurpegik. Bere izena ez

jakindare, ze herritakoa dan ta ze kuadrillakiñ atutzen dan bakizu... hau hola izaten da. Ta geo ligau, ba juergan beti.

— Bai, eozin atsaldeetan geittuta ez.

— Ez, atsalde baten geatu ezkeo, bezperan juergan lotu ezkeo.

— Es ke hemen zaille da, danak ezagutzen dituzu ta ezautzen zaizte. Ez da izaten: Zein ote da gustatu zuten pertsona hoi?! Dauneko badakizu, ezautzen dezu..!

— Bai, gutxi gorabehera baukezu bere berri.

— Beste herritakoa izandare ze mundutakoa dan, ze inguru daken...

— Ta gero bai, gero juergan.

— Alkohola, egie esanda, alkohola faktore oso inportantea da.

— Bai. Musika. Ta *ya está*.

— Beste herritakokiñ relazionatzeko modu bakarra hoi da, juergan. Gu beste herritakokiñ bestela ez gea eoten, ez ba poteo baten eo parrandan. Hoi da relazionatzeko modu bakarra, ligatzeko.

— Nik ustet urte gutxin bueltan Zaldibiko mentalidadek ikaragarri eboluzionau dola, ta herri txikie izanda, merittue dakela esango nuke. Gu umek giñela, mutil bati beste mutil bat gustatzea... bueno, bueno... astakerie zan! ta etxene hala aitzen zendun. Ta azkeneko 10-15 urte hotan, derrepente etxen normalizatu eñ da ta gure artene bai. Baiño holaxe ee! Nabarmen.

— Nik igual Gaztetxea harremanetan inportantea izan dala esango nuke. Azkenen bertan jende pilla batekin ta generazio desberdiñetako jendekiñ harremantzen zea. Juergataz aparte, asko harremandu gean toki bat dala esango nuke.

— Gero bazan Pikadero deitzen giñun txoko bat, goien.

— Gaztetxeko ganbaran zeon, teillatu formea zeken. Hor bai, relazio pila sortzen zien. Argi berezie jarri gendun, gorrie. Baju xamarra zanez koltxoiak jarri giñuzten ta hantxe eoten giñen gaueko ordu txikikarte. Han bai etzala alkoholik eoten sekula, ta ordubik, hiruek...

— Guk sexualidaden aurreneko formakuntza 3. DBHn edo jasoko gendun. Lotsagarrie. Oso txarra. Instituton.

— Sexualidadei buruzko gauzak Pikaderon hitzeitten zien!! ta gaztetxen orokorren...

— Ta Oiduiñ!

— Ta Oiduiñ, klaro...

— Toki hoi da... eztakit nola esplikau. Toki hoi beste mundu bat da, toki hortan... herriko guztik bertatik pasa dienez, eozini galdetu ezkeo seittun akordauko da bertan bizitakotaz.

Zer gertatzen da ba Oiduin?

OIDUI aipatu eta hasperen sakona egiten du zaldibiarrek. Hainbeste gauza...! Hain inportantea da leku hau! Ezkutuko kontuen lekua... Han, koberturarik gabe, argirik gabe, kandlekin, txistorrak *zirin* egiten, sua egin eta inguruan gaupasan... Naturaren erdian... Arbasoekin loturan...

Mota askotako bilerak egin izan dira artzain txabola izandakoan: festa herrikoiak, omenaldiak, irteerak, gaupasak. Belaunaldiz belaunaldi mantendu du lokarri hori zaldibiarren artean, duela 49 urte martxan jarri zenetik. Klandestinitate politiko eta sexu-afektiborako gordelekurik aproposena, inimiziazio erritual guztien gunea: lehen gaua etxetik kanpo haurtzaroan, mendian bizirautekoa, lehen mozkorraldia, lehen musuak, lehen sexu harremanak... Energia telurikoa dario mendi-taldeak kudeatzen duen txabola honi.

Esploradore kitzikatuak ezagutu beharra dauka leku hori! Kotxea ur deposituetan utzi eta jentilen galtzadan gora abiatu da. Jentilarri izeneko trikuharri zoragarria topatu du pagadi eder baten alboan. Kristautasunak asmatutako kondaira ezaguna dauka trikuharri honek:

Jentilak kristautasunaren aurretik lurralde horietan bizi ziren pertsona fedegabeak omen ziren. Izena “gentil” hitz latindarretik dator, eta horrela zeritzoten pertsona fedegabeei. Kristautasuna etorri zenean, beraien bizimodua aldatu egin zen, eta mendian bizi ziren, bakarrik, etxe urrunetan, beste herritar kristau guztiengandik aldentuta. Behin batean, jentilek, Aralarko muino batean jolasean ari zirela, laino argitsu bat ikusi omen zuten hurbiltzen ekialdetik. Izututa, jakintsu nagusi batengana jo omen zuten. Jakintsuak, laino distiratsua ikusi zuenean, honela esan zuen: “Kixmi jaio da, gure askaziak berea egin du, bota nazazue amildegitik behera”. Jentilek jaurti zuten agurea, eta, lainoa atzetik zutela, korrika abiatu ziren mendebalderantz. Arraztarango haranera iritsi zirenean, harri zabal handi baten azpian sartu omen ziren ezkutatzeko asmotan. Geroztik, harlauza handi horri Jentillarri deitzen zaio, eta herri sinesmenak dio azken jentilak bertan hilobiratuak daudela. Jentillarri hori, benetan, historiaurreko monumentu bat da, trikuharri bat da, hain zuzen ere. Halere, ez omen ziren jentil guztiak orduan hil, haietako bakar batek biziraun izan baitzuen. Jentil honek Euskal Herri osoan Kixmiren jaiotza iragartzen du eta bere izena Olentzero da.

Ejem.

Pikuetatik gora Esteban Oidura ailegatu denean behorrek dabilta inguru osoan bazkan.

Langa igaro eta txabolaren barrualdean ondo kuxkuxeatutakoan, kanpoaldean itzaletan dagoen mahaian eseri eta koaderno ireki du, hango paretetik kontatzen

dizkioten istorioak apuntatzeko.

Oidui zubia da. Garai guztietako gizakiekin eta naturarekin bat egiteko leku pribilegiatua.

DUELA 5 URTE 22 zituen Mirenek eta, Arte Ederretako karrera amaitu berritan, hurrengo urtean zer egingo ote zuen ez zekiela, bere gauza guztiak jaso eta herrira bueltatu zen uda pasatzera. Uda hura bere bizitzako unerik erabakigarriena bezala bizi zuen, unibertsitate bizimodua utzita erabakiak hartu beharrean baitzegoen. Emozioak kateatuta zeuzkan. Egia esan esperantza gutxi zeuzkan herrian geratzeko hiriko bizimodura eginda zegoelako, eta alde handia zeukan herriko giroarekin. Hala ere betiko lagunekin elkartu eta betiko planak egiten aritu zen.

Abuztuaren hasieran Oiduiara igo ziren, astebete pasatzera. Edurne, Larraitz, Aitziber, Amalur, Jon, Mikel, Peio, Aitor, Maitane... Terapia bezalakoa da Oiduiara joatea. Inork ez du han mobila faltan hartzen, hantxe egotea da... Benetakoa. Gero eguraldi ona egiten badu, hogeit hamar minutura Lazkao aldera Lareo urtegia dago, eta harantz joan, bainatu, mendi bueltaren bat, kobazuloak ere badaude... baina normalean plana hantxe egotea izaten da. Uste baino erosoago sentitu zen Miren ere betiko lagun taldearen baitan, nahiz eta berak estilo diferentea zeukala argi zegoen.

Lagun taldekoek edari asko igo zituzten baina hirugarren egunerako dena bukatua zen eta beharrezkoa ere ez zela konturatu ziren. Han egonik, izan ere, beste alde horretan baitzeuden jada, tristurak eta lotsak txikiak diren lekuan, lagunarteko konfiantza osoan...

Seigarren eguneko gaubeilaren unereren batean Miren eta Larraitz txiza egitera urrundu ziren sutondoan kontu-kontari zebilen taldeagandik. Suaren argitasunetik urrunduta begiak iluntasunean egokitu zituztenean izar pila bat ikusten zela ohartu ziren. Izar iheskor bat ikusi zuen Larraitzek eta “Eskatu desio bat!”, esan zion Mireni. “Zer nahi dudan aurkitzea”, erantzun besteak. Soroan etzan ziren ea izar iheskor gehiago ikusten ote zituzten, eta beren desioez mintzatzera.

Haize freskoak eraginda elkarrengana estutu ziren bi neskak, eta konplizitate barre artean elkar laztantzen hasi ziren. Larraitzek halako batean musu eman zion Mireni, ezpainetan eta goxo. Miren ez zen mugitu eta beste bat eman hark. Mihiak lotzen hasi ziren hirugarrenarekin, norabide jakinik gabeko jolasean bizi. Miren apartatu egin zen une batean, pentsatu ezean gustura zegoen arren ez baitzuen aurretik neska batekin inoiz morreorik eman. “Zeatik ez? Oiduin gauden...!”, esan zion Larraitzek. Handik hiru ordutara eskutik helduta itzuli ziren sutondoko lagunengana, kezkatuta egon zitezkeelakoan, baina ordurako sua itzalita eta lo zeuden denak.

Lotsagabetasunez aurre egin zioten gerora herrian gertatuko zen txutxu-

mutxuen zaparradari, baina ordurako ez ziren Zaldibiako lehen bollerak ere. Oraingoz herrian geratu zen Miren eta arratsaldeetan okindegian lanean hasi zen. Mundua ezagutzera irteteko harrarekin jarraitzen zuen Mirenek ordea.

Gertatu zen negu horretan norbaitek Oiduiako txabolari su eman ziola. Ez Mirenen eta Larraitzen artekoagatik, noski, baizik eta Aralarko pisten aferarekin lotuta; dirudienez, zaldibiarrei min emateko asmoz. Trauma handia hartu zuen Mirenek, beste zaldibiarrek bezalatsu... Beretzat hain inportantea zen lekua kiskalita!

Hura konpontzeko egin zen auzolana izan zen ikaragarria! Herriak nola parte hartu zuen, halakorik ez da ikusi egundo... Herri guztia! Euria egiten bazuen, euria... Batzuek igual aldamenen dagoen txabola hartu eta han bazkaria prestatu beste guztientzat eta besteak bitartean lanean, Zaldibiako igeltsero jubilatuak... muebleak egiten dituenak egin zuen mueblea propio hartarako... Mantendu zen esentzia iguala. Gelak, dena iguala! Egin zutena izan zen teilatua pixka bat igo ze lehen makurtuta ibili beharra baitzegoen... Esentzia berdina, baina orain berria dena. Eta txabola bat izaten segitzen du...

Han ibili ziren Miren eta Larraitz, noski, baita Eburne, Amalur, Jon, Mikel, Peio, Maitane... Oso hunkigarria izan zen han komunitatean emandako une bakoitza, eta obra bukatutakoan argazkia ateratzeko zaldibiarren talde osoa ikurrinaren ondoan elkartu zenean Mirenek inoiz ez bezala egin zuen negar.

ESPLORADOREAREN AZKEN PASEOKO KALENTURAK

ZALDIBIATIK xamurtasunaren irudi lausoa eta xaloa daramala pentsatuko du bat-batean esploradore egoiliarak. Eta paseo bat ematera aterako da galderen karpeta eskuan. Oso gustura egon da eta Zaldibiako komunitatean oso ondo hartu dute, xamurtasun ikusezin guztia sumatu du, egon ugari dago, begiradetan, irribarreetan, ahots tonu goxoan, konfiantza giro atseginean, laguntzeko gogoan... Birra pila bat edan ditu jendartean, hizketaldi goxoak izan ditu, eta jende zoragarria ezagutu du, jada (hau argitaratu arte behintzat) lagun dituenak bihotzean, ostiraletan Beti Gazteko jubilatuekin egin dituen Ttipi-ttapa ibilaldietan gustura asko ibili da kontu kontari...

Hala ere... Ez al dute zaldibiarrek (eta beste herrietako biztanle guztiek, mundu osoan, bereziki pandemia edo postpandemia garai gor hauetan) elkarrekiko maitasuna adierazteko premia izugarririk? Besarkatu eta musuka jateko goserik? Hain gara heziak errespetuan, adeitasunean, lotsan... Maitasuna adierazteak lotsarazteraino?

Bale, esaten du, alkohola ondo dago hasierako lotsak kentzeko, baina noiz

hasiko dira laztanak? Akelarreak non dira? Noiz ospatuko dira?

Ostiral iluntzean Joxepaneako terrazako mahai batera igo eta aldarrikatu nahi luke: Ito ditzagun errekan lehenbailehen *kotilleoen* aguazil zelatari hori eta gure barne-apaiz zahar hori...! Eta hasiko gara behingoz elkarrengana hurbiltzen lotsak biluztuz?

Letania bat bezala errepikatzen ditu halako galderak esploradore arituak, Zaldibiako kale eta bideetan zehar berriro ere lanbropean oinez doala...

Ez du ikusi helduen arteko musurik, ez besarkada luzerik ere, eta seigarren egunean gizon batek, Koldo poetak, agurtzeko bostekoa eman zionean... aste osoan ukitzen zuen lehenengo pertsona zela ohartutakoan sustoa hartu zuela gogoratzen du, hotzikara moduko bat. Azala pixka bat loditu zaiola sentitu du agian, edo agian ez.

Biologian, ona den hura eta plazera ematen duena lotuta daude, batera doaz beti. Gure kasuan ordea nahiko desaktibatuta dago lotura hori: oinarrizko plazerekin lotsatzen den espezie bakarra gara. Esploradore asalatuak, orduan, oinez politki doalarik, argi ikusten du: etxeen izena daukala Zaldibiako xamurtasunak...

Mendiondo... Oberena... Txindokipe
Mugertza... Eder... Biok Bat
Urbia... Goiz Eguzki... Danak Bat
Lourdesenea... Zubiaurre... Imazenea

Ikerketan aritutako hiru asteetan ez du inor ikusi
banku batean morreatzen
ipurdian eskua sartzen
edo plazatik eskutik helduta begiradak limurtzen

Kanpain... Seroretxea... Karrerane
Olanoetxea... Elizalde... Toki Alai
Albisu... Furundarena... Txindoki
Estanko... Albisuetxeberri... Presalde

Laztan, musu, besarkadak pareta horien barruan
txutxu-mutxu epaile brigadetatik salbu
Sentsualitate askatu guztiak intimitate horretan
Kaletik begi bistan ez dago azal fin bizirik

Etxeberri... Lizarizabal... Arretxea

Konfiteri... Lekueder... Barandiaran
Eskribau... Maraundi... Ibaigain
Errementari Goikoa... Aztiriaga... Arrese

Sexy den guztia gortinen atzean gertatzen da
gorputz biluziak elkarrekin igurzten
masajeak, laztanak, mingain jostalariak
plazeraren izerdiak ateratzen

Eloseginea Txamarretxe... Iturritza... Zubimusu
Biurriñe... Txapeletxe... Iztueta Kapagindegia
Iztuetaberri... Etxabenea... Bidegain
Nazabalenea... Bidearte... Ñañarri...

Aldapa gora hasten da hor, aurrera jarraituz gero mendi aldera eramango
duena esploradore beroa, Ausa-Gaztelura, Jentilen Sukaldera, artzainen bordetara...
Harantz doa berriro! Eta bidean ere... Galderak eta irudimena eta galdera berriak...

Goroskindegia... Iñusti... Oskorri
Katteroenea... Haizeleku... Mendizabal
Agiñegi... Gorriñea... Bidasola
Zuloeta... Iparragirre... Olakosai...

*Eta kideen arteko loturak eguneroko harremanetan oinarritzen ziren: zirriak
eginez, ukituz, musukatuz, elkar garbituz eta elkarri mesedeak eginez...*

Eta hala bazan edo ez bazan...